



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

PRAKTIKEN ARAUTEGI AKADEMIKOA

2024-09-11

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Mondragon Unibertsitatea

AURKIBIDEA:

1. SARRERA	1
2. OINARRIZKO ARAUTEGIA	2
Legeak eta arautegiak	2
Unibertsitate ikasketen arautegiak	2
Praktika akademikoen arautegiak	2
Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizatzeari buruzkoak	2
Unibertsitate Ikasleen Estatutua	2
Tituluaren Europako Gehigarria	2
3. XEDAPEN OROKORRAK	3
3.1. 1. artikulua. Kanpo praktiken definizioa, ezaugarriak eta bereizgarriak	3
3.2. 2. artikulua. Xedeak	3
3.3. 3. artikulua. Kanpo praktika akademiko motak	4
3.4. 4. artikulua. Praktiken iraupena eta ordutegia	5
3.5. 5. artikulua. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak	6
3.6. 6. artikulua. Praktiken onuradunak eta praktikak egiteko baldintzak	6
3.7. 7. artikulua. Praktiketako ikasleen eskubide eta eginkizunak	7
3.8. 8. artikulua. Tutoretza eta tutore izateko baldintzak	8
3.9. 9. artikulua. Erakunde laguntzaileko tutorearen eskubideak eta eginkizunak	8
3.10. 10. artikulua. Unibertsitateko tutore akademikoaren eskubideak eta eginkizunak	9
3.11. 11. artikulua. Erakunde laguntzaileko tutorearen amaierako txostena	9
3.12. 12. artikulua. Ikaslearen amaierako memoria	10
3.13. 13. artikulua. Praktiken ebaluazioa	10
3.14. 14. artikulua. Aintzatespen akademikoa eta akreditazioa	11
3.15. 15. artikulua. Gradu curriculum barneko kanpo praktikak: eskaintza, zabalkundea, esleipena eta uko egitea	11
3.16. 16. artikulua. Unibertsitate masterretako curriculum barneko kanpo praktikak: eskaintza, zabalkundea, esleipena eta uko egitea	13
3.17. 17. artikulua. Curriculumaz kanpoko praktikak: eskaintza, zabalkundea, esleipena eta uko egitea	14
3.18. 18. artikulua. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko curriculumaz kanpoko praktiken eskaintza, zabalkundea, esleipena, uko egitea eta beste alderdi batzuk	15
4. BEREZKO IKASKETETAKO KANPO PRAKTIKA AKADEMIKOAK	16
4.1.1. 19. artikulua. Berezko unibertsitate ikasketetako kanpo praktiken iraupena	16
5. KANPO PRAKTIKA AKADEMIKOAK ATZERRIAN	16
5.1. 20. artikulua. Xedapen orokorrak	16
5.2. 21. artikulua. Erasmus prestakuntza iraunkorreko programari lotutako kanpo praktikak (Erasmus+)	16

5.3. 22. artikulua. Unibertsitateko mugikortasun programaren bati lotutako kanpo praktikak atzerrian	17
5.4. 23. artikulua. Asegurua	17
5.5. 24. artikulua. Kasuan kasuko bisak eta baimenak izapidetzea	18
6. KANPO PRAKTIKEN ADMINISTRAZIO IZAPIDEAK	18
6.1. 25. artikulua. Istripu aseguru eta erantzukizun zibileko aseguru	18
6.2. 26. artikulua. Besteren konturako langileekin parekatzea	18
6.3. 27. artikulua. Babesa, kotizazioa eta ordainketa	18
6.4. 28. artikulua. Unibertsitate ikasleen curriculum barneko kanpo praktiken kotizazioa Gizarte Segurantzari: hobariak	19

1. SARRERA

Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoan aldaraziak, azpimarratzen du goi mailako hezkuntza garrantzitsua dela garapen pertsonal, kultural, zientifiko, tekniko eta ekonomikoan, eta printzipioak finkatzen ditu mugikortasunean, tituluaren aitortzan eta bizitzan zeharreko ikasketan oinarritutako unibertsitate eremu komun baterako. Legeak erabakimenez egiten du goi mailako hezkuntza sistemak Europako goi mailako hezkuntza eremuaren esparruarekin bateratzearen alde, eta onartzen du beharrezkoa dela kalitatezko prestakuntza bat eskaintzea, ezagutzaren erronka eta desafioak aintzat hartu eta gizartearen beharrak asetzeko.

Unibertsitate ikasketa ofizialen arautegi berria (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoan sartua, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Eremua sortzeko prozesuak eskatuta; lege horrek abenduaren 21eko Unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa aldarazten du, eta urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan garatzen da; otsailaren 2ko unibertsitate ikasketa ofizialak arautzeko 43/2015 Errege Dekretuak aldarazia da errege dekretu hori), garrantzitsutzat jotzen da unibertsitate ikasleek kanpo praktikak egitea. Gradu ikasketa planei buruz, zera aurreikusten da: «ikasleak jaso beharreko prestakuntza teoriko eta praktikoa guztia biltzea» (12.2 artikulua) eta «kanpo praktikak programatuz gero, tituluaren kreditu guztien % 25 osatzea gehienez ere eta ikasketa planen bigarren zatian eskaintzea» (12.6 artikulua).

Aldi berean, abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuan onartutako Unibertsitate Ikasleen Estatutuaren 8. artikuluan esaten da gradu ikasleek eskubidea dutela «praktikak egiteko aukera izateko, curriculum barnekoak zein curriculumaz kanpokoak, kanpo erakundeetan eta unibertsitateko ikastegi, azpiegitura eta zerbitzuetan, aurreikusitako modalitatearen arabera eta betiere prestakuntza helburu gisa hartuta» (f atala) eta «babes eraginkor, akademiko eta profesionala jasotzeko (...) ikasketa planean aurreikusitako kanpo praktiketan» (g atala). Estatutu horren 24. artikuluan, xehetasun handiagoz arautzen dira kanpo praktika akademikoak, praktika motak eta haien ezaugarri orokorrak, eta adierazten da unibertsitateko edo haiei atxikitako ikastegietako edozein ikasketatan matrikulatutako ikasleei dagokiela kanpo praktikak egitea.

Azkenik, 592/2014 Errege Dekretuan, zenbait alderdi garatzen, zehazten eta argitzen dira; esate baterako, praktiken, erakunde laguntzaileen eta hartzaileen helburuak, eta baldintzak, tutoretzak eta hezkuntza lankidetzaren esparruko hitzarmenen edukiak. Horretaz gainera, ikasleek administrazio publikoetan eta enpresa pribatuetan praktikak egitea ere sustatu behar da arautegi honetan, etorkizuneko profesionalen enplegarritasuna bultzatzeko, haien ekintzaile, sormen eta berritzaile gaitasuna areagotzeko, eta, era horretan, ezagutzaren gizartean oinarritutako eraldaketa ekonomikoarekiko konpromisoan aurrera egiteko.

Arautegi eta gida akademiko honen helburua zera da: arautzea kanpo praktika akademikoaren antolaketa, helburuak, hezkuntza lankidetzaren esparruko hitzarmenak, erakunde laguntzaileekiko harremana eta ikasleek erakunde horietan praktikak egitea.

Gradu eta master titulu ofizialetan eta unibertsitateko berezko tituluetan aplikatuko da arautegi hau: berezko master tituluetan, unibertsitate espezializazioetako diplometan eta unibertsitate adituen tituluetan.

2. OINARRIZKO ARAUTEGIA

Hona hemen kanpo praktika akademikoen arautegi eta gida honen esparrua osatzen duen lege multzoa:

Legeak eta arautegiak

- **6/2001 LEGE ORGANIKOA**, abenduaren 21ekoa, unibertsitatei buruzkoa.
- **4/2007 LEGE ORGANIKOA**, apirilaren 12koa, abenduaren 21eko unibertsitateen 6/2001 Lege Organikoa aldarazten duena.
- **27/2011 LEGEA**, abuztuaren 1ekoa, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeari, egokitzeari eta modernizatzeari buruzkoa.
- **8/2014 ERREGE DEKRETU-LEGEA**, uztailaren 4koa, hazkunderako, lehiakortasunerako eta eraginkortasunerako presazko neurriak onartzeari buruzkoa.

Unibertsitate ikasketen arautegiak

- **1393/2007 Errege Dekretua**, urriaren 29koa, unibertsitate ikasketa ofizialen arautegia xedatzen duena.
- **861/2010 Errege Dekretua**, uztailaren 2koa, lan esperientziagatik edo esperientzia profesionalagatik kredituak aitortzeari buruzko 1393/2007 Errege Dekretua aldarazten duena.
- **43/2015 Errege Dekretua**, otsailaren 2koa, unibertsitate ikasketa ofizialen arautegia xedatzen duen 1393/2007 Errege Dekretua aldarazten duena.

Praktika akademikoen arautegiak

- **592/2014 Errege Dekretua**, uztailaren 11koa, unibertsitate ikasleen kanpo praktika akademikoak arautzen dituena.

Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizatzeari buruzkoak

- **1493/2011 Errege Dekretua**, urriaren 24koa, prestakuntza programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartzeko baldintzak eta betebeharrak arautzen dituena.

Unibertsitate Ikasleen Estatutua

- **1791/2010 Errege Dekretua**, abenduaren 30ekoa, Unibertsitate Ikasleen Estatutua onartzen duena.

Tituluaren Europako Gehigarria

- **1044/2003 Errege Dekretua**, abuztuaren 1ekoa, unibertsitateek Tituluaren Europako Gehigarria emateko prozedura ezartzen duena.
- **22/2015 Errege Dekretua**, urtarrilaren 23koa, 1393/2007 Errege Dekretuan araututako tituluei Europako Gehigarria emateko baldintzak ezartzen dituena.

- ❖ Mondragon Unibertsitateko kanpo praktiken arautegi akademikoa, Kontseilu errektoreak 2015-03-31n onartua.
- ❖ 2018ko irailaren 3an moldatua (18. artikuluan, Mondragon Unibertsitateko Humanitatea eta Hezkuntza Zientzien fakultateko CKPen eskaintza, zabalkundea, esleipena, uko egitea eta beste alderdi batzuk, 10. puntua gehitu da) eta HUHEZIKo Graduko Lan Taldeak onartua.
- ❖ 2020ko azaroaren 12an moldatua (VII.atala, COVID PROTOKOLOA gehitu da) eta HUHEZIKo Graduko Lan Taldeak onartua.

3. XEDAPEN OROKORRAK

3.1. 1. artikulua. Kanpo praktiken definizioa, ezaugarriak eta bereizgarriak

- 3.1.1. Praktika akademikoak prestakuntza-jarduerak dira, unibertsitate ikasleentzat pentsatuak, eta Fakultateak gainbegiratzen ditu. Izan ere, helburua zera da: ikasleei aukera ematea prestakuntza akademikoaren aldian hartutako ezagutzak aplikatzeko eta osatzeko, eta, aldi berean, jarduera profesionalari begirako gaitasunak bereganatzen laguntzea.
- 3.1.2. Unibertsitatean bertan edo erakunde laguntzaileetan egin daitezke praktikak, hau da, nazio mailako zein nazioarteko enpresa, erakunde eta entitate publiko eta pribatuetan.
- 3.1.3. Kanpo praktika akademikoak prestakuntzari begira egiten direnez, praktikak egiteak ez dakar, inondik ere, lan harreman bati dagozkion betebeharrak hartzea, ezta lanpostuei dagozkien lan zerbitzuak ordezkatzeko ere.
- 3.1.4. Ikasketak bukatzean ikasle bat erakunde laguntzaile batean lan egiten hasiz gero, praktikaldia ez da aintzat hartuko antzinasunari begira eta ez da erabiliko probaldia murrizteko, salbu dagokion hitzarmen kolektiboan besterik xedatzen den kasuetan.
- 3.1.5. Administrazio publikoetan, zuzenbide publikoko erakundeetan eta gainerako erakunde publikoetan, kanpo praktika akademikoak egitea ez da merezimendutzat hartuko funtzio publikoan sartzeari begira eta ez da kontuan hartuko antzinasuna eta alde zuzenetik emandako zerbitzuak kalkulatzeko.

3.2. 2. artikulua. Xedeak

Kanpo praktika akademikoak eginez, honako xede hauek lortu nahi dira:

- 3.2.1. Ikasleen prestakuntza integrala osatzea, ikasketa teorikoak eta praktikoak uztartuz.
- 3.2.2. Ikasleek aurrez aurre izango duten errealitate profesionalaren arabera lan metodologia bat eskaintzea, jasotzen dituzten ezagutzak kontrastatu eta aplikatu dituzten.
- 3.2.3. Gaitasun teknikoak, metodologikoak, pertsonalak eta parte hartzeari dagozkionak garatzen laguntzea.
- 3.2.4. Ikasleek esperientzia praktiko bat izatea, errazago sar daitezela lan merkatuan eta beren etorkizuneko enplegarritasuna hobetu dadin.
- 3.2.5. Berrikuntzarekin, sormenarekin eta ekintzailetzarekin lotutako balioak sustatzea.

3.3. 3. artikulua. Kanpo praktika akademiko motak

Kanpo praktika akademikoak curriculum barnekoak zein kanpokoak izan daitezke.

- 3.3.1. Curriculum barneko praktikak kasuan kasuko ikasketa planeko jarduera akademikotzat hartzen dira.

Hona hemen curriculum barneko praktiken zerrenda:

TITULUA	MATERIA	IKASMAILA	ECTS
GRADUA			
Haur Hezkuntza			
	Practicum I	1.maila	4
	Practicum II	2. maila	6
	Practicum III	3. maila	8
	Practicum IV	3. maila	6
	Practicum V	4. maila	16
Lehen Hezkuntza			
	Practicum I	1.maila	4

	Practicum II	2.maila	6
	Practicum III	3. maila	8
	Practicum IV	3. maila	6
	Practicum V	4. maila	16
Ikus-entzunezko Komunikazioa			
	Praktikak	3. maila	18
Humanitate Digital Globalak			
	Praktikak	3. maila	12
UNIBERTSITATE MASTERRA			
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra	Praktikak	Edozein	13
Ikaskuntza Errazten eta Berrikuntzan - LIT	Praktikak	Edozein	26
BEREKO TITULUAK			

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu titulua	- - -		
Jatorrizko Hizkuntzen eta identitateen Berreskurapenerako aditu titulua	- - -		
Kirol Hezitzailea aditu titulua	Praktikak	Edozein	160
Komunikazioa Erakundeetan aditu titulua	- - -		
Kooperatibagintzan aditu titulua	- - -		
Ekonomia Solidarioan Garapenerako Kudeaketa Ekonomiko eta Sozialean masterra	- - -		

3.3.2. Curriculumaz kanpoko praktikak borondatezko praktikak dira, eta prestakuntza aldiaren egiten dira. Curriculum barneko praktiken xede bera duten arren, ez dira ikasketa planetan sartzen. Dena den, aintzat hartuko dira espediente akademikoan eta Tituluaren Europako Gehigarrian, indarrean den arautegian zehaztutakoaren arabera.

3.4. 4. artikulua. Praktiken iraupena eta ordutegia

3.4.1. Praktiken iraupena:

3.4.1.1. Curriculum barneko praktiken iraupena kasuan kasuko ikasketa planetan zehaztuko da, urriaren 29ko unibertsitate ikasketa ofizialak arautzen dituen 1393/2007 Errege Dekretuko 12.6 artikuluan xedatutako baldintzen eta unibertsitate ikasketei buruz Mondragon Unibertsitateak ezarritako arautegien arabera. Gutxienezko ordu presentzial batzuk egin beharko dira erakundeetan: graduatiko eta unibertsitate masterretako ECTS bati dagozkion 25 orduetatik 10.

3.4.1.2. Curriculumaz kanpoko praktikek 100 ordu iraungo dute gutxienez, eta ez dira izango ikasturte akademikoaren guztizkoaren % 50. Ikasleen jardura akademikoak behar bezala gauzatzea eta haien segimendua egitea zainduko da.

3.4.1.3. Ikasturte berean Curriculum barneko praktikak eta Curriculumaz kanpokoak egiten diren kasuetan, bi praktiken ordu kopuruaren batura ez da izango ikasturte akademikoaren guztizkoaren %50 baino handiagoa.

3.4.2. Praktiken ordutegiak kasuan kasuko praktiken ezaugarrien eta erakunde laguntzailearen aukeren arabera erabakiko dira. Nolanahi ere, bateragarriak izango dira ikasleak unibertsitatean betetzen duen jardura akademikoarekin, prestakuntzarekin, ordezkariarekin eta parte hartzearekin. Edozein kasutan ere, praktikek ezingo dute oztopatu klase egunetako dinamika.

3.4.3. Modalitate erdi presentzialean, ikasleak praktiken hasiera eta amaiera datetan egokitzea eska dezake, beti ere modulu bakoitzak dituen mugen barruan. Egokitzea hori kasuan kasu aztertu eta zehaztuko da. Behin egokitzea ikaslearen eta Practicum taldearen artean adostuta, ez da beste aldaketarik onartuko.

- 3.4.4.** Curriculumaz kanpoko praktikak eskola orduetan eginez gero, ezingo dira izan 4 ordutik gorakoak. Oporraldian, eguneko 8 ordura ere zabaldu liteke muga hori.

3.5. 5. artikulua. Hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak

- 3.5.1.** Kanpo praktikak egiteko, Fakultateak hezkuntza lankidetzarako hitzarmenak sinatuko ditu arautegi honetako 1.2 artikuluan aipatutako erakunde laguntzaileekin.

- 3.5.2.** Hitzarmen horietan, ikaslearen, erakunde laguntzailearen eta Fakultatearen arteko harremanen arau esparrua zehaztuko da. Hitzarmenen oinarritzko xedapenetan edo haiei buruzko eranskinetan, eduki hauek agertu behar dute gutxienez:

- 3.5.2.1.** Ikasleak egingo duen praktikak helburu duen prestakuntza proiektua.
- 3.5.2.2.** Baimenen erregimena, indarrean den arautegiaren arabera.
- 3.5.2.3.** Baldintzak ez betetzeagatik praktika alde aurretik bertan behera uzteari buruzko arauak.
- 3.5.2.4.** Hala badagokio, zer erregimenetan sinatu eta ordainduko diren aseguruak. Istripu aseguruak, erantzukizun zibileko aseguruak eta berme finantzario baliokidea sartzen dira.
- 3.5.2.5.** Hala badagokio, ikasleentzako lan poltsa bat edo ikasketak laguntzeko poltsa bat, baita poltsa hori nola osatuko den ere.
- 3.5.2.6.** Datuen babesa.
- 3.5.2.7.** Praktikaldiko balizko gatazkei buruzko arauak.
- 3.5.2.8.** Nola aitortuko duen unibertsitateak erakunde laguntzaileetako tutoreen lana.

- 3.5.3.** Alderdi guztiek sinatu beharko dituzte hitzarmenak, kanpo praktikaldia hasi aurretik.

3.6. 6. artikulua. Praktiken onuradunak eta praktikak egiteko baldintzak

- 3.6.1.** Kanpo praktika akademikoak egiteko aukera izango dute ikasle hauek:

- 3.6.1.1.** Fakultatean eskaintzen diren ikasketetako edozeinetan matrikulatutako ikasleak.
- 3.6.1.2.** Espainiako edo atzerriko beste unibertsitate batzuetatik etorri (mugikortasun akademikorako programen edo hitzarmenen bitartez) eta Fakultatean ikasten ari diren ikasleak.

- 3.6.2.** Kanpo praktikak egiteko, baldintza hauek bete behar dituzte ikasleek:

- 3.6.2.1.** Praktikei dagozkien konpetentziekin (oinarritakoak, orokorrak eta/edo espezifikokoak) lotutako unibertsitate ikasketetan matrikulatuta egotea.
- 3.6.2.2.** Curriculumaz kanpoko praktikak egiteko, beharrezkoa da haiekin lotutako irakasgaietan matrikulatuta egotea, ikasketa planaren arabera.
- 3.6.2.3.** Ikasle tituludunek (hau da, ikasketa planeko eskola ordu guztiak gaindituak dituztenak) ezin dute curriculumaz kanpoko praktikarik egin.
- 3.6.2.4.** Ez da onartuko inongo kontratu harremanik izatea praktikak egingo diren enpresarekin, erakundearekin, entitate publiko edo pribatuarekin, eta Fakultatearekin, baldin eta titulazioa koordinatzeaz arduratzen den organoaren baimenik ez badago. Azken kasu horretan, kasuan kasuko titulazioak erabakiko du zein diren lan

jarduera curriculumaz kanpoko praktika akademikotzat hartzeko baldintzak.

3.7. 7. artikulua. Praktiketako ikasleen eskubide eta eginkizunak

3.7.1. Kanpo praktika akademikoak egitean, honako eskubide hauek izango dituzte ikasleek:

- 3.7.1.1.** Praktikak irauten duen bitartean, unibertsitateko irakasle baten eta praktiken enpresan, erakundean edo entitatean zerbitzuak ematen dituen profesional baten tutoretza izango dute.
- 3.7.1.2.** Ebaluaziorako eskubidea, Fakultateak ezarritako irizpideen arabera.
- 3.7.1.3.** Erakunde laguntzaileak txosten bat idatziko du, datu hauek emanez: jardueraren ezaugarriak, iraupena eta, hala badagokio, errendimenduari buruzko datuak.
- 3.7.1.4.** Hala adostuz gero, erakunde laguntzaileak diruz ordainduko du praktikaldia, ikasketa poltsa edo laguntza kontzeptu gisa.
- 3.7.1.5.** Jabetza intelektualerako eta industrialerako eskubidea, gaiari dagokion lege arautzaileko baldintzen arabera.
- 3.7.1.6.** Erakunde laguntzaileak segurtasunari eta lan arriskuen prebentzioari buruzko informazioa emango du.
- 3.7.1.7.** Erakunde laguntzaileari aldeztu aurretik jakinaraziz gero, jarduera akademikoa, prestakuntza, ordezkaritza eta parte hartzea bete ahal izango dute.
- 3.7.1.8.** Ezgaitasunen bat duten ikasleei ere baldintza beretan emango zaizkie tutoretzarako, informaziorako, ebaluaziorako eta praktikak gauzatzeko baliabideak.
- 3.7.1.9.** Kontuan hartuko dira indarrean den arautegian eta/edo Fakultateak erakunde laguntzailearekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan ageri diren eskubideak ere.

3.7.2. Bestalde, ikasleek eginkizun hauek izango dituzte kanpo praktika akademikoetan:

- 3.7.2.1.** Kanpo praktikei buruz indarrean den arautegia betetzea. Fakultateak erabakiko du arautegi hori.
- 3.7.2.2.** Praktiketako prestakuntza proiektuaren berri izatea eta hura betetzea, erakunde laguntzaileak aukeratutako tutorearen argibideei jarraituz. Unibertsitateko tutore akademikoak gainbegiratu du eginkizun hori.
- 3.7.2.3.** Unibertsitateko tutore akademikoarekin harremanetan egotea praktikak egin bitartean eta hari gorabehera guztien berri ematea. Bestalde, ikasleak hari eman beharko dizkio tarteko segimenduari buruzko txosten eta dokumentuak eta amaierako memoria.
- 3.7.2.4.** Adostutako egunean erakunde laguntzailean praktiketan hastea, hezkuntza proiektuan adierazitako ordutegia betetzea eta erakundeko funtzionamenduari, segurtasunari eta lan arriskuen prebentzioari dagozkion arauak errespetatzea.
- 3.7.2.5.** Hezkuntza proiektua gauzatea eta erakunde laguntzailearekin adostutako jarduerak zuzenki betetzea, erakundeak berak ezarritako ildoari jarraituz.
- 3.7.2.6.** Praktikak amaitzean memoria bat idaztea, bai eta, hala badagokio, titulazioaren gida akademikoan eskatutakoa betetzea ere.
- 3.7.2.7.** Praktikak egin bitartean eta haiek bukatu ondoren konfidentzialtasuna gordetzea erakunde laguntzailearen barne

informazioari dagokionez, eta sekretu profesionalari eustea erakundearen jardueri buruz.

- 3.7.2.8. Fakultateak adostutako arautegia betetzea Datuen Babeserako Legea bete behar duten materialak erabiltzean.
- 3.7.2.9. Errespetuzko jarrera izatea erakunde laguntzailearen politikarekiko, hari dagokion unibertsitatearen izen ona babestearren.
- 3.7.2.10. Indarrean den arautegian eta/edo Fakultateak erakunde laguntzailearekin sinatutako hezkuntza lankidetzarako hitzarmenetan ageri diren eginkizunak.

3.8. 8. artikulua. Tutoretza eta tutore izateko baldintzak

- 3.8.1. Ikasleek erakunde laguntzaileko tutore bat eta unibertsitateko tutore akademiko bat izango dituzte, kanpo praktikak egiteko.
- 3.8.2. Erakunde laguntzaileak aukeratutako tutoreak lotura izan beharko du erakundearekin berarekin, eta, tutoretza eraginkorra izan dadin, esperientzia profesionala eta beharrezko ezagutzak izango ditu. Erakundeko tutorea eta unibertsitateko tutore akademikoa ezin dira pertsona bera izan.
- 3.8.3. Fakultateko tutore akademikoa aukeratzeko, Fakultateak ezarritako prozedurei jarraituko zaie:
 - 3.8.3.1. Curriculum barneko praktketan, Fakultateko irakasle bat izango da tutorea, eta beharrezkoa izango da praktikarekin lotutako gaiarekin lotura izatea.
 - 3.8.3.2. Curriculumaz kanpoko praktketan ere, Fakultateko irakasle bat izango da tutore akademikoa, eta beharrezkoa izango da eskolaz ematea praktikekin lotutako ikasketei dagokien jakintza adar berean.

3.9. 9. artikulua. Erakunde laguntzaileko tutorearen eskubideak eta eginkizunak

- 3.9.1. Erakunde laguntzaileko tutoreak honako eskubide hauek izango ditu:
 - 3.9.1.1. Fakultateak EAETik kanpoko praktketan, ziurtagiri baten bidez aitortuko du tutorearen lana. EAEkoen kasuan, Eusko Jaurlaritzari dagokio ziurtagirira egitea (33/2018 Dekretua, martxoaren 6koa jarraituz).
 - 3.9.1.2. Kanpo praktikei buruzko arautegiaren, hezkuntza proiektuaren eta hura gauzatzeko baldintzen berri izango du.
 - 3.9.1.3. Fakultatean emango zaio tutoretza betetzeko beharrezkoak dituen informazioa eta babesa.
 - 3.9.1.4. Fakultateak ezarritako beste batzuk.
- 3.9.2. Bestalde, honako eginkizun hauek izango ditu:
 - 3.9.2.1. Ikasleari harrera egitea eta hark gauzatu beharreko jarduera antolatzea, hezkuntza proiektuan ezarritakoari jarraituz.
 - 3.9.2.2. Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, orientabidea ematea eta praktikaren garapena kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikasketarekiko konpromisoan oinarrituta.
 - 3.9.2.3. Ikasleari informazioa ematea erakundearen antolaketari eta funtzionamenduari buruz, bai eta intereseko arautegiari buruz ere (bereziki, segurtasunari eta lan arriskuei buruz).

- 3.9.2.4.** Unibertsitateko tutorearekin batera koordinatzea hezkuntza lankidetzarako hitzarmenean ezarritako jarduerak, bai eta, behar izanez gero, praktika egoki gauzatzeari begira prestakuntza planean egindako aldaketa guztiak ere. Halaber, praktikaldian gorabeherarik sortuz gero, haien berri emateaz eta haiek konpontzeaz arduratuko da, eta azterketak egiteko baimenak kontrolatuko ditu.
- 3.9.2.5.** Amaierako txostena idaztea.
- 3.9.2.6.** Praktikak egiteko prestakuntza osagarria ematea, ikasleak hala behar izanez gero.
- 3.9.2.7.** Praktikak gauzatzeko ezinbesteko baliabide materialak ematea ikasleari.
- 3.9.2.8.** Ikasleei proposamenak egiten laguntzea eta horretara bultzatzea berrikuntzarekin, hobekuntzarekin eta ekintzaitzazekin lotutako gaietan.
- 3.9.2.9.** Erakundean sartzeko bidea ematea unibertsitateko tutore akademikoari, haren jardueraren helburuak betetze aldera.
- 3.9.2.10.** Konfidentzialtasuna gordetzea tutore gisa ikasleari buruz eskuratutako informazioari dagokionez.
- 3.9.2.11.** Laguntza ematea ikasleari, erakundean den bitartean, erakundeko jarduerak betetzean sortutako gorabehera profesionalak konpontzeko, halakorik suertatuz gero.

3.10. 10. artikulua. Unibertsitateko tutore akademikoaren eskubideak eta eginkizunak

- 3.10.1.** Honako eskubide hauek izango ditu unibertsitateko tutore akademikoak:
 - 3.10.1.1.** Jarduera akademikoa aitortuko zaio, dagokion arautegian ezarritako baldintzetan oinarrituta.
 - 3.10.1.2.** Kanpo praktikei buruzko arautegiaren, hezkuntza proiektuaren eta tutoretzapean izango duen ikaslearen egonaldiaren baldintzen berri izango du.
 - 3.10.1.3.** Erakundera jotzeko aukera emango zaio, tutoretzari dagozkion helburuak betetze aldera.
- 3.10.2.** Bestalde, honako eginkizun hauek izango ditu:
 - 3.10.2.1.** Hezkuntza proiektua egoki garatzen dela zaintzea. Horretarako, ikaslearen praktiken ordutegia eta haren betebeharrak akademikoak, prestakuntza, ordezkaritza eta parte hartzea uztartzen direla bermatuko du.
 - 3.10.2.2.** Praktiken segimendu eraginkor bat egitea, erakunde laguntzaileko tutorearekin koordinatuta.
 - 3.10.2.3.** Hezkuntza proiektuan aldaketak egiteko baimena ematea.
 - 3.10.2.4.** Tutoretzapeko ikaslearen praktikaldia ebaluatzeko prozesua gauzatea.
 - 3.10.2.5.** Konfidentzialtasuna gordetzea tutore gisa ikasleari buruz eskuratutako informazioari dagokionez.
 - 3.10.2.6.** Fakultateak adostutako arautegia betetzea Datuen Babeserako Legea bete behar duten materialak erabiltzean.
 - 3.10.2.7.** Gorabeherarik sortuz gero, haien berri ematea Fakultatean kanpo praktiken ardura duen organoari.
 - 3.10.2.8.** Laguntzarako baliabideak egokiak direla gainbegiratzea, eta, beharrezkoa bada, baliabide horiek eskatzea.

3.11. 11. artikulua. Erakunde laguntzaileko tutorearen amaierako txostena

Praktikaldia amaitzean, erakunde laguntzaileko tutoreak amaierako txostena idatzi eta unibertsitateko tutore akademikoari bidaliko dio. Txosten horretan, ikasleak praktikaldian emandako ordu kopurua azalduko da, eta, horretaz gainera, hezkuntza proiektuan aurreikusitako konpetentzia orokor eta espezifikoetarako buruzko arlo hauek balioetsiko ditu:

3.12. 12. artikulua. Ikaslearen amaierako memoria

3.12.1. Praktikak bukatzean, ikasleak memoria bat idatzi eta unibertsitateko tutore akademikoari emango dio. Gai hauek azalduko dira, besteak beste:

- 3.12.1.1.** Ikaslearen datu pertsonalak
- 3.12.1.2.** Zer erakunde laguntzailetan egin duen praktikaldia eta non dagoen erakundea.
- 3.12.1.3.** Egindako lanen deskribapen zehatza eta xehea, eta zer sailetan aritu den.
- 3.12.1.4.** Egindako lanen eta lortutako ezagutzen eta gaitasunen balioespina, unibertsitateko ikasketekin lotuta.
- 3.12.1.5.** Zer arazo sortu zaizkion eta zer prozedurari jarraitu zaion haiek konpontzeko.
- 3.12.1.6.** Ikasketaren ikuspuntutik zer ekarpen egin dioten praktikek.
- 3.12.1.7.** Praktikaldiaren ebaluazioa eta hobetzeko proposamenak
- 3.12.1.8.** Titulazioek beste eginkizun batzuk ere eskatu ahal izango dituzte, titulazio bakoitzari dagozkion konpetentziei lotuta.

3.13. 13. artikulua. Praktiken ebaluazioa

- 3.13.1.** Unibertsitateko tutore akademikoak eta erakunde laguntzaileko tutoreak ebaluatuko dituzte curriculum barneko praktikak, titulazioaren arauetara jarraituz.
- 3.13.2.** Curriculumeko praktiken ebaluazioarekin, uko egitearekin eta matrikularekin lotutako gaietan, titulazioen arautegi akademikoaren arabera jokatu da.
- 3.13.3.** HH eta LH graduen kasuan, arautegi akademikoko VIII. ataleko 2. azpiatalean, A.3. puntuan, adieraztendena jasotzen da jarraian:

Practicum-eko moduluak 2 deialdi izango dituzte.

Practicum bakoitza beste modulu batekin lotuta dago. Ikasturte akademiko barruan moduluko ikaste emaitza guztiak gainditu behar dira. Ez da aukerarik egongo modulua gainditu eta practicum ez gainditzeko, edo alderantziz. Hau da, bietako bat gainditu ezean guztia errepikatu beharko da. Practicum beste modulu batekin lotuta dauden moduluak ondorengoak dira:

- Esperientzia hezitzaileak Haur Hezkuntzarako + Practicum I
- Esperientzia hezitzaileak Lehen Hezkuntzarako + Practicum I
- Ikaskuntza eta garapena errazten irakaslearen roletik + Practicum II
- Ikaskuntza sakona eta STEM + Practicum II
- Esperientzia Didaktiko Biziak + Practicum III
- Aipamen bakoitzeko hirugarren moduluak - Practicum IV
- Berrikuntzan ikerlari-eragile + Practicum V (alternantziako ibilbidean ere eskaintzen da)

Gradu Bukaerako Lana aurkeztu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ikasketa plana osatzen duten gainerako modulu guztiak gaindituta izatea.

Deialdiak agortzen dituzten ikasleek ezingo dute ikasketa hauekin jarraitu. Halere, onartua izanez gero, beste ikasketa batzuei ekin ahal izango die Unibertsitate honetan beste behin bakarrik.

3.13.4. Curriculumaz kanpoko praktikak ez dira ebaluatuko zenbaki kalifikazio bidez.

3.14. 14. artikulua. Aintzatespen akademikoa eta akreditazioa

3.14.1. Kanpo praktikak akademikoki aintzatesteko, titulazioek ezarritako arau eta prozedurak aplikatuko dira.

3.14.2. Kanpo praktikak amaitzean, Fakultateak espediente akademikoan sartuko ditu praktikak, gutxienez alderdi hauek zehaztuta:

3.14.2.1. Zer erakundetan bete den praktikaldia.

3.14.2.2. Iraupena eta data

3.14.2.3. Praktiken ezaugarriak (curriculum barnekoak ala curriculumaz kanpokoak)

3.14.3. Tituluaren Europako Gehigarrian ere jasoko da kanpo praktiken berri.

3.15. 15. artikulua. Graduko curriculum barneko kanpo praktikak: eskaintza, zabalkundea, esleipena eta uko egitea

3.15.1. HH eta LH

3.15.1.1. Ikasleek aipatutako lehentasunak kontuan izango dira, betiere 33/2018 DEKRETUA, martxoaren 6koak esandako prozesua jarraituz. (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoa).

3.15.1.2. Praktikak ikasleei esleitu eta jakinarazi ondoren, banan-banan formalizatuko dira praktika akordioak. Arautegi honen 5. artikuluari jarraituz, akordioa sinatuko da praktikaldia hasi baino lehen, nahikoa denbora hartuta.

3.15.1.3. Praktikaldia eten egingo da horretarako arrazoiak emanez gero, aldi baterako edo behin betiko. Alderdiek (ikaslea, erakunde laguntzailea eta Fakultatea) horren berri eman beharko dute, tutore akademikoaren bitartez, lehenbailehen.

3.15.1.4. Arrazoi justifikatutzat hartuko dira honako hauek: alderdietakoren batek praktiken hitzarmeneko baldintzak ez betetzea eta/edo zerbaitetan ados ez egotea; erakunde laguntzailean sortutako arazo teknikoak eta antolaketa arazoak; ikaslea gaixo egotea edo arazo pertsonalak izatea; eta, oro har, praktikaldia egoki gauzatzea eragozten duen beste edozein arrazoi.

3.15.1.5. Praktiken arduradunak aukera izango du arazoak konpontzeko batzorde bat osatzeko, ikasleen praktikaldian zehar sortzen diren arazoei aurre egiteko. Betiere, titulazioko koordinatzaileak batzordeko kide izan beharko du.

3.15.1.6. Ikasleak, praktikaldia hasi baino lehen, ezinbestean izan beharko du, delitu sexualik ez dutela egiaztatzen duen agiria.

3.15.2. IKO

3.15.2.1. Praktiken arduradunaren izena praktikaldia hasi aurretik agertuko da curriculum barneko kanpo praktiken eskaintzan, ikasleek aldeztu aurretik jakin dezaten zer aukera dituzten eskura. Eskaintza horietan, datu hauek emango dira, ahal den neurrian:

- Erakunde laguntzailearen izena edo izen soziala
- Zentroa, herria eta helbidea
- Praktiken hasiera eta amaiera data, eta iraupena
- Eguneko ordu kopurua eta ordutegia
- Praktikei dagozkien prestakuntza proiektua, jarduerak eta kompetentziak
- Lan poltsa ekonomikoaren zenbatekoa (erakunde laguntzailearen aldetik)

3.15.2.2. Praktiken arduradunak kanpo praktiken eskaera egiteko eta esleitzeko prozedura ezarriko du, baita zabalkundea egingo ere, gardentasunaren, publizitatearen, irisgarritasun unibertsalaren eta aukera berdintasunaren printzipioak bermatuta.

3.15.2.3. Fakultateko kanpo praktiken eskaintza praktikak egingo diren unitateko arduradunak proposatuko du. Proposamen horretan, artikulua honetan eskaintza orokorretarako emandako informazio guztia agertuko da.

3.15.2.4. Ikasleek aukera izango dute praktikak erakunde jakin batean egitea eskatzeko, betiere eskaera kanpo praktiketako arduradunak adierazitako eguna baino lehen egiten bada. Eskaera egin ondoren, erakundeak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu beharko du, nahitaez, Fakultatearekin, ezarritako prozedura jarraituz.

3.15.2.5. Kanpo praktiketako arduradunak adierazitako egunetik aurrera lotu barik dituzten ikasleek, Fakultateak eskainitako praktikaldiren batean izena eman beharko dute.

3.15.2.6. Praktikak esleitzeko orduan, ikasleek beren eskaeretan azaldutako helburu espezifikoak eta motibazioak hartuko dira kontuan. Ikasle batek baino gehiagok praktika bera egin nahi izanez gero, erakunde laguntzaileak hartuko du erabakia, elkarrizketa baten bidez. Ikasle batek eskaintza batean baino gehiagotan izena ematen badu, onartua izan den lehen erakundearen egin beharko ditu praktikak.

3.15.2.7. Praktikak ikasleei esleitu ondoren, banan-banan formalizatuko dira praktika akordioak. Arautegi honen 5. artikuluari jarraituz, alderdi guztiek sinatu beharko dute akordioa, praktikaldia hasi baino lehen, nahikoa denbora hartuta.

3.15.2.8. Ordaindutako praktikaldien kasuan, erakunde laguntzaileek zuzenean ordainduko diete laguntza ekonomikoa ikasleei, legezko atxikpenak aplikatuta.

3.15.2.9. Praktikaldia eten egingo da horretarako arrazoiak emanez gero, aldi baterako edo behin betiko. Alderdiek (ikaslea, erakunde laguntzailea eta Fakultatea) horren berri eman beharko dute, tutore akademikoaren bitartez, lehenbailehen.

- 3.15.2.10.** Arrazoi justifikatuztat hartuko dira honako hauek: alderdietako batek praktiken hitzarmeneko baldintzak ez betetzea eta/edo zerbaitetan ados ez egotea; erakunde laguntzailean sortutako arazo teknikoak eta antolaketa arazoak; ikaslea gaixo egotea edo arazo pertsonalak izatea; eta, oro har, praktikaldia egoki gauzatzea eragozten duen beste edozein arrazoi.
- 3.15.2.11.** Praktikei uko egin eta horretarako arrazoiak emanez gero, Fakultateak beste praktika bat esleituko dio ikasleari.
- 3.15.2.12.** Praktiken arduradunak aukera izango du arazoak konpontzeko batzorde bat osatzeko, ikasleen praktikaldian zehar sortzen diren arazoei aurre egiteko. Betiere, Ikus-entzunezko Komunikazio Graduko koordinatzaileak batzordeko kide izan beharko du.
- 3.15.3. HDG**
- 3.15.3.1.** Praktiken arduradunak curriculum barneko praktikak egiteko dauden eskaintzen berri emango die ikasleei, eta hauek, berriz, euren arloan diharduen erakunde batekin (izan gradutik jakinarazitako eskaintzaren baitakoa, izan eurek euren kabuz bilaturikoa) harremanetan jarriko dira; erakunde horretan curriculum barneko praktikak egiteko dituzten aukerak aztertu eta kontrastatuko dituzte praktiketako koordinatzailearekin batera, eta baita bete beharreko baldintzak betetzen diren egiaztatu ere.
- 3.15.3.2.** Praktikak esleitzeko orduan, ikasleek beren eskaeretan azaldutako helburu espezifikoak eta motibazioak hartuko dira kontuan. Ikasle batek baino gehiagok praktika bera egin nahi izanez gero, erakunde laguntzaileak hartuko du erabakia, elkarrizketa baten bidez.
- 3.15.3.3.** Praktikak ikasleei esleitu eta jakinarazi ondoren, banan-banan formalizatuko dira praktika akordioak. Arautegi honen 5. artikuluari jarraituz, alderdi guztiek sinatu beharko dute akordioa, praktikaldia hasi baino lehen, nahikoa denbora hartuta.
- 3.15.3.4.** Erakunde laguntzaileek praktikak finantzatzeko ahala izango dute; betiere, indarrean diren legeen arabera.
- 3.15.3.5.** Erakunde laguntzaileek zuzenean ordainduko diete laguntza ekonomikoa ikasleei, legezko atxikipenak aplikatuta.
- 3.15.3.6.** Praktikaldia eten egingo da horretarako arrazoiak emanez gero, aldi baterako edo behin betiko. Alderdiek (ikaslea, erakunde laguntzailea eta Fakultatea) horren berri eman beharko dute, tutore akademikoaren bitartez, lehenbailehen.
- 3.15.3.7.** Arrazoi justifikatuztat hartuko dira honako hauek: alderdietakoren batek praktiken hitzarmeneko baldintzak ez betetzea eta/edo zerbaitetan ados ez egotea; erakunde laguntzailean sortutako arazo teknikoak eta antolaketa arazoak; ikaslea gaixo egotea edo arazo pertsonalak izatea; eta, oro har, praktikaldia egoki gauzatzea eragozten duen beste edozein arrazoi.
- 3.15.3.8.** Praktikei uko egin eta horretarako arrazoiak emanez gero, Fakultateak beste praktika bat esleituko dio ikasleari.
- 3.15.3.9.** Praktiken arduradunak aukera izango du arazoak konpontze aldera batzorde bat osatzeko, ikasleen praktikaldian zehar sor litezkeen auziei aurre egiteko. Betiere, Humanitate Digital Globalak titulazioko koordinatzailea(e)k batzordeko kide izan beharko du(te).

3.16. 16. artikulua. Unibertsitate masterretako curriculum barneko kanpo praktikak: eskaintza, zabalkundea, esleipena eta uko egitea

- 3.16.1.** Masterrek kanpo praktiken eskaera egiteko eta esleitzeko prozedura ezarriko dute, baita haren zabalkundea egingo ere, gardentasunaren, publikitatearen, irisgarritasun unibertsalaren eta aukera berdintasunaren printzipioak bermatuta.
- 3.16.2.** Praktikak ikasleei esleitu eta horren berri eman ondoren, banan-banan formalizatuko dira praktika akordioak. Arautegi honen 5. artikuluari jarraituz, alderdiek sinatu beharko dute akordioa, praktikaldia hasi baino lehen, nahikoa denbora hartuta.
- 3.16.3.** Praktikaldia eten egingo da horretarako arrazoiak emanez gero, aldi baterako edo behin betiko. Alderdiek (ikaslea, erakunde laguntzailea eta Fakultatea) horren berri eman beharko dute, tutore akademikoaren bitartez, lehenbailehen.
- 3.16.4.** Arrazoi justifikatuz hartuko dira honako hauek: alderdietakoren batek praktiken hitzarmeneko baldintzak ez betetzea eta/edo zerbaitetan ados ez egotea; erakunde laguntzailean sortutako arazo teknikoak eta antolaketa arazoak; ikaslea gaixo egotea edo arazo pertsonalak izatea; eta, oro har, praktikaldia egoki gauzatzea eragozten duen beste edozein arrazoi.
- 3.16.5.** Praktiken arduradunak aukera izango du arazoak konpontzeko batzorde bat osatzeko, ikasleen praktikaldian zehar sortzen diren arazoei aurre egiteko. Betiere, masterreko koordinatzaileak batzordeko kide izan beharko du.

3.17. 17. artikulua. Curriculumaz kanpoko praktikak: eskaintza, zabalkundea, esleipena eta uko egitea

- 3.17.1.** Enpresek, erakundeek eta entitate publiko edo pribatuek beraiek aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak, Fakultatean. Gero, jasotako eskaintzak aztertuko ditu Fakultateak. Eskaintzak egokiak badira Fakultateko ikasketen profilerako, eskaintza horien zabalkundea egiteko eta kudeatzeko prozesuari ekingo zaio.
- 3.17.2.** Curriculumaz kanpoko praktiken arduradunak egingo du eskaintzaren zabalkundea, eta hark kudeatuko ditu hautagaiak, enpresek, erakundeek eta entitate publiko edo pribatuek eskatutako profilei egokituta.
- 3.17.3.** Praktikak eskaintzen dituzten erakundeek aukera izango dute aurrez aurreko elkarrizketa bat eskatzeko, Fakultateak aukeratutako hautagaietatik bat aukeratzeko. Elkarrizketa izango da aukeratze prozesuaren azken proba. Arrazoirik eman gabe elkarrizketara huts eginez gero, ikasturte akademiko osoan praktikak egin gabe geratuko da ikaslea.
- 3.17.4.** Enpresak edo erakundeak aukeratuko ditu behin betiko hautagaiak, eta Fakultateari jakinaraziko dio bere erabakia. Nolanahi ere, ikasle batek enpresa bat aukeratzeko badu praktikak egiteko eta arautegi honetako baldintzak betetzen baditu, edo erakundeak zuzenean aukeratu badu, Fakultateak berak aukera izango du ikasle horren aldeko proposamen bat egiteko.
- 3.17.5.** Ikasleek aukera izango dute ikasturte berean curriculumaz kanpoko praktika bat baino gehiago egiteko; betiere, 4. artikuluan finkatutako muga gainditu gabe.
- 3.17.6.** Ikasleek aukera izango dute curriculum barneko zein kanpoko praktikak egiteko, enpresa eta ikasturte akademiko berean.
- 3.17.7.** Curriculumaz kanpoko praktika bati uko egin nahi izanez gero, idatziz azaldu eta ukoaren arrazoiak eman beharko dira.

- 3.17.8.** Praktiketara 60 ordu egin baino lehenago uko eginez gero, ikasleek ez dute izango, halakorik balego, dirurik jasotzeko eskubiderik (salbu Fakultateak egiaztatzen badu enpresak akordioa hautsi duela edo erakundeak praktiken prestakuntza prozesuan huts egiten badu). Ukoa ordu muga hori gaindituta eginez gero, ikasleek eskubidea izango dute proportzionalki dagokien diru saria jasotzeko, enpresak edo erakundeak ziurtagiri bidez akreditatutako ordu kopuruaren arabera.
- 3.17.9.** Ikasleak bere ukoa arrazoitzen ez badu, aukera galduko du ikasturte akademiko berean curriculumaz kanpoko beste praktikaldi batean parte hartzeko.
- 3.17.10.** Oro har, diruz ordainduko dira curriculumaz kanpoko praktikak.
- 3.17.11.** Gaixo egonez gero eta huts eginez gero, ez da beharrezkoa izango huts horiek osatzea, baldin eta gaixotasun arrunta bada, hutsa behar bezala arrazoitu bada eta ondoz ondokoak ez diren 15 egun natural edo ondoz ondoko 5 egun baino gehiago ez badira. Halaber, ez dira osatu beharko azterketak edo amaierako probak egitearen eta unibertsitatearen orientabide eta segimendu saioetara joatearen ondoriozko hutsegiteak.
- 3.18. 18. artikulua. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko curriculumaz kanpoko praktiken eskaintza, zabalkundea, esleipena, uko egitea eta beste alderdi batzuk**
- 3.18.1.** Fakultateak curriculumaz kanpoko praktika kopuru jakin baterako deialdia egingo du, ikasturtero, prestakuntza akademikoaren osagarri gisa. Horretarako, Mondragon Unibertsitatean aldeztu aurretik argitaratutako deialdia hartuko da erreferentzia gisa.
- 3.18.2.** Eskaintzaren zabalkundea eta kudeaketa Fakultateko Administrazio eta Finantzen sailak egingo du. Posta elektronikoaren bidez egingo da zabalkunde hori.
- 3.18.3.** Oro har, Fakultateko sail batean baino gehiagotan eskainiko dira praktikak, eta sail bakoitzaren esku egongo da zer premia dituzten eta zer praktika mota behar dituzten zehaztea.
- 3.18.4.** Deialdian, praktiken ezaugarriekin zerikusia duten alderdi guztiak zehaztuko dira, bai eta ikasleen baldintzak, aurkeztu beharreko dokumentazioa, aurkezteko epea eta tokia, eta hautaketarako irizpideak ere.
- 3.18.5.** Esleipena hamar eguneko epean argitaratuko da, eskaerak aurkezteko azken egunetik kontatzen hasita. Deialdi batean hautatu ez diren ikasleekin, beste zerrenda bat osatuko da, ikasturte akademikoan zehar sortzen diren beharrei aurre egiteko. Ikasturte akademikoaren bukaerara arte izango du balioa zerrenda horrek.
- 3.18.6.** Ikasleen eta Fakultatearen eskubideak eta betebeharrak hitzarmen batean jasoko dira. Praktikak hasi aurretik sinatuko da hitzarmen hori. Bestalde, ikasleak harrera plan espezifiko bat jasoko du Fakultatearen aldetik, praktikekin lotutako zenbait alderdiri buruz informatze aldera.
- 3.18.7.** Praktikak amaitzean, sail bakoitzean aldeztu aurretik definitutako kompetentziak ebaluatuko dira, ikasle guztiak, banan-banan. Bestalde, ikasleak ere aukera izango du praktikak ebaluatzeko.
- 3.18.8.** Ikasleek aukera izango dute ikasturte berean curriculumaz kanpoko praktika bat baino gehiago egiteko; betiere, arautegi honetako 4. artikulua betetzen bada.

- 3.18.9.** Ikasleek aukera izango dute curriculum barneko zein curriculumaz kanpoko praktikak egiteko, Fakultate berean eta ikasturte akademiko berean; betiere, arautegi honetako 4. artikulua betetzen bada.
- 3.18.10.** Ez dira diruz ordainduko curriculumaz kanpoko praktikak, curriculum barneko praktikekin bateragarriak ez diren epeetan. Ez eta, unibertsitatearen materialak / lan-sekuentziak / lan- proposamenak / moduluak egitearen ondorioz sortu daitezkeen hutsegiteak, nahiz eta hutsegite horiek titulazioko koordinatzaileak justifikatutakoak izan. Dena dela, aukera emango zaio ikasleari jardunean ez aritutako orduak errekueratzeke.
- Gaixo egonez gero eta huts eginez gero, ez da beharrezkoa izango huts horiek osatzea, baldin eta gaixotasun arrunta eta behar bezala arrazoituta bada.
- 3.18.11.** Curriculumaz kanpoko praktika bati uko egin nahi izanez gero, idatziz azaldu eta ukoaren arrazoiak eman beharko dira. Ikasleak bere ukoa arrazoitzen ez badu, aukera galduko du ikasturte akademiko berean curriculumaz kanpoko beste praktika batean parte hartzeko.
- 3.18.12.** Fakultateko diziplinarteko proiektuetan curriculumaz kanpoko praktikak egiten dituzten ikasleek ere arautegi hau bete beharko dute.

4. BEREZKO IKASKETETAKO KANPO PRAKTIKA AKADEMIKOAK

- 4.1.1. 19. artikulua. Berezko unibertsitate ikasketetako kanpo praktiken iraupena**
- 4.1.1.1.** Unibertsitate adituen tituluetako, masterretako eta unibertsitate espezializazioetako diplometako berezko tituluetan, aukera izango da ikasketa planetan curriculum barneko kanpo praktika akademikoak txertatzeko.
- 4.1.1.2.** Halaber, aukera izango da berezko titulu horietan curriculumaz kanpoko kanpo praktika akademikoak txertatzeko ere.
- 4.1.1.3.** Berezko titulu horietan programatutako curriculum barneko kanpo praktika akademikoek tituluko kreditu kopuruaren heren bat hartuko dute, gehienez ere.

5. KANPO PRAKTIKA AKADEMIKOAK ATZERRIAN

- 5.1. 20. artikulua. Xedapen orokorrak**
- 5.1.1.** Atzerriko prestakuntza praktikoa honako ikasketa hauetan eska daiteke: gradu eta master ikasketa ofizialetan, eta unibertsitate adituen tituluetako, masterretako eta unibertsitate espezializazioetako diplometako berezko tituluetan. Lan merkatuko edozein erakunde publiko edo pribatutan egin daitezke praktikak, bai eta hezkuntzaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren esparruetan ere.

5.2. 21. artikulua. Erasmus prestakuntza iraunkorreko programari lotutako kanpo praktikak (Erasmus+)

- 5.2.1. Erasmus+ programaren helburua zera da: beste herrialde batean ikasketa edo lan esperientzia bati ekiteko aukera ematea ikasleei, praktiketako ikasleei, gazteei eta boluntarioak, eta baita unibertsitate irakasleei, beste irakasle batzuei, hezitzaileei, gazteriaren arloko langileei, hezkuntza erakundeetako langileei eta gizarte zibileko erakundeetako langileei ere.
- 5.2.2. Europar Batasuneko estatu kideek zein Europar Batasunaz kanpokoek (baldin eta programaren barnean badira) parte hartzen dute Erasmus+ programan.
- 5.2.3. Ahal den neurrian, ikasleen gradu edo master ikasketen programan sartuko dira Erasmus+ programako prestakuntza praktikoko aldiak. Nolanahi ere, unibertsitateko ikasketak bukatuak dituzten ikasleek titulu lortu eta gehienez ere urtebeteko epean parte hartu ahal izango dute Erasmus+ programan.
- 5.2.4. Hezkuntza graduen kasuan 3. mailako Practicum IIIa atzerrian egiteko aukera dago.
- 5.2.5. Unibertsitate adituen tituluetako, masterretako eta unibertsitate espezializazioetako diplometako berezko tituluak ez dira Erasmus+ programan sartzen.
- 5.2.6. Prestakuntza praktikoa 2 hilabetetik 12 hilabetera bitartekoa izango da. Ikasle bakoitza gehienez 12 hilabetez egon daiteke mugikortasun egonaldian, ziklo bakoitzean. Egonaldi hori zati batean baino gehiagotan egin dezake, eta hainbat mugikortasun jardura motatan. Ikasle graduatu berrien prestakuntza praktikoa iraupena kalkulatzeko, ziklo horretan egin duen prestakuntza praktikoa denbora kenduko zaio ziklo horri dagokion 12 hilabeteko epe osoari.
- 5.2.7. Mugikortasun aldia hasi aurretik, beharrezkoa izango da jatorriko eta helmugako erakundeek eta ikasleek akordio bat lortzea, ikasleek zer jardura egingo dituzten zehazteko («ikasketa akordio» bat izango da): atzerriko egonaldian lortu beharreko ezagutzak, gaitasunak eta konpetentziak; praktikak aintzatesteko xedapen formalak; eta alderdi bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak.
- 5.2.8. Erakundeak eta Fakultateak hezkuntza lankidetzarako hitzarmena (Learning Agreement) sinatu arte, ikasleak ezingo du egin Erasmus+ programako kanpo praktikaldiarekin lotutako inongo gasturik. Hitzarmena sinatu aurretik gasturen bat eginez gero, Fakultateak ez du bere gain hartuko.

5.3. 22. artikulua. Unibertsitateko mugikortasun programaren bati lotutako kanpo praktikak atzerrian

- 5.3.1. Europan eta Europatik kanpo eta Erasmus+ programatik edo antzekoren batetik (Global Training, Faro, eta abar) kanpo egindako kanpo praktiken programetan, arautegi bat finkatuko da. Zehazki, lankidetzak akademikorako akordio bat (edo beste modalitate bateko akordio bat) egingo da helmugako herrialdeko enpresa edo erakunde batekin, legea betez helmugako herrialdean praktika akademikoak egiteko.
- 5.3.2. Fakultateak eta helmugako erakundeak hezkuntza lankidetzarako hitzarmen batean jasoko ditu egotaldian garatu beharreko helburu eta konpetentziak, baita ere egotaldian zehar finkatuko den lankidetzak markoa.
- 5.3.3. Hezkuntza graduen kasuan 3. mailako Practicum IIIa atzerrian egiteko aukera dago.
- 5.3.4. Erakundeak eta Fakultateak hezkuntza lankidetzarako hitzarmena (Learning Agreement) sinatu bitartean, ikasleak ezingo du egin praktikaldiarekin

lotutako inongo gasturik. Hitzarmena sinatu aurretik gasturen bat eginez gero, Fakultateak ez du bere gain hartuko.

5.4. 23. artikulua. Asegurua

Atzerriko praktikaldia hasi aurretik, Fakultatearen ardura izango da erantzukizun zibileko, osasun laguntzarako eta istripu laguntzarako aseguruaren polizak sinatzea, Mondragon Unibertsitateko Nazioarteko Batzordeak ezarritako baremo minimoen arabera.

5.4.1. Praktikaldia Europan betetzen duten ikasleek Europako Osasun Txartela izan behar dute.

5.5. 24. artikulua. Kasuan kasuko bisak eta baimenak izapidetzea

5.5.1. Ikasleen ardura izango da kasuan kasuko bisak eta baimenak izapidetzea eta baliozkotzea, atzerriko praktikaldia hasi baino 20 egun lehenago.

5.5.2. Ikasleren batek bisarik edo baimenik lortzen ez badu epe horretan, Fakultateak beste praktika bat esleituko dio, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan.

5.5.3. Kasuan kasuko bisa edo baimena lortu eta Fakultateak onartu bitartean, ikasleak ezingo du egin praktikaldiarekin lotutako inongo gasturik. Arau hori betetzen ez bada, Fakultateak ez dio gasturik ordainduko ikasleari, baldin eta dagozkion bisak lortzen ez baditu atzerriko praktikaldia hasi baino 20 egun lehenago.

6. KANPO PRAKTIKEN ADMINISTRAZIO IZAPIDEAK

6.1. 25. artikulua. Istripu aseguruaren estalduraz gainera, enpresek eta erakunde

6.1.1. Ikasleen aseguruaren estalduraz gainera, enpresek eta erakunde laguntzaileek —edo, hala badagokio, Fakultateak— erantzukizun zibileko aseguruaren edo haren baliokide bat eman beharko dute, hala adostutako kasuetan. Bestalde, istripu poliza bat ere formalizatuko dute ikaslearentzat, heriotzari, ezintasun iraunkorrari edo ezgaitasun iraunkorrari lotutako estaldura eta bermeak sartuta, bai eta osasun laguntza mugagabea ere, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrak halakorik ematen ez duen kasuetan.

6.2. 26. artikulua. Besteren konturako langileekin parekatzea

6.2.1. Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean sartzeari begira, besteren konturako langileekin parekatuko dira erakunde edo entitate publiko eta pribatuek finantzaturako prestakuntza programetan parte hartzen duten ikasleak, baldin eta programa horiek lotura badute unibertsitateko edo lanbide heziketako ikasketekin baina hertsiki ikasketei begirakoak ez badira (esate baterako, prestakuntza praktikak enpresa, erakunde eta entitateetan) eta lansari ekonomikoa ematen badute, edozein kontzeptu edo modutan. Betiere, Gizarte Segurantzaren dagokion erregimenean altarik egin gabe eta horrenbestez inongo lan harremanik finkatu gabe parte hartuko da programa horietan.

6.2.2. Aurreko atalean aipaturako prestakuntza programetan parte hartzeko baldintzak egiaztatzeko, programak finantzatzen dituzten entitate edo

erakundeek ziurtagiri bat emango dute, prestakuntza programaren baldintzak eta iraupena zehaztuta.

6.3. 27. artikulua. Babesa, kotizazioa eta ordainketa

- 6.3.1. Gizarte Segurantzako erregimen orokorrari dagokion babesa jasoko du ikasleak, salbu langabeziagatiko babesari dagokiona.
- 6.3.2. Gizarte Segurantzaren kontingentzia arruntengatiko eta profesionalengatiko kotizazioari eta ordainketari dagokienez, Estatuko Aurrekontu Orokorraren Legean eta hura aplikatzeko eta garatzeko arauetan ezarritako kotizazio arauak aplikatuko dira, prestakuntzarako eta ikasketarako kontratueterako ezarritakoak.
- 6.3.3. Ez da nahitaez jasoko langabeziagatiko kontingentzien kotizaziorik, ezta Soldadak Bermatzeko Funtsik eta prestakuntza profesionalagatiko kotizaziorik ere.

6.4. 28. artikulua. Unibertsitate ikasleen curriculum barneko kanpo praktiken kotizazioa Gizarte Segurantzaren: hobariak

- 6.4.1. Unibertsitate ikasleen curriculum barneko kanpo praktikek % 100eko hobaria jasoko dute Gizarte Segurantzako kotizazioan, kontuan izanik besteren konturako langileekin parekatzen direla Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean, Gizarte Segurantzaren sistema eguneratu, egokitu eta modernizatzeari buruzko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen (prestakuntza programetan parte hartzen duten pertsonak Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartzeko baldintzak arautzeko urriaren 24ko 1493/2011 Dekretuan garatua) hirugarren xedapen gehigarria betez.



